



ORIOKOUNDALA

ORIOKO TXU-TXU TREN TURISTIKOAREN GIDARI LANPOSTU BATEN DEIALDIA

Orioko Udalak Txu-Txu tren turistikoaren gidari bat hartuko du lanerako aurtengo denboraldi ofizialean (ekainaren 23tik irailaren 10era) eta deialdia egiten du lanpostu hori betetzeko. Hartuko den langilearen kontratua lan-zuzenbideko erregimenean egingo da, denboraldi baterako eta lanaldi osorako.

LANPOSTUA

Orioko Txu-Txu tren turistikoaren gidari bat.

BALDINTZAK

- Deialdian parte hartzeko, 18 urte beteak izan behar dira.
- Euskaraz hitz egiten jakitea, lanpostuari dagozkion funtzioak egoki bete ahal izateko neurrian. Euskarazko ahozko proban, nahitaez, 1,5eko puntuazioa lortu behar da gutxienez.
- D mailako gidabaimena edukitzea.

AZTERKETAK

Hiru azterketa egin beharko dituzte izangaiek:

- **Euskarazko ahozko proba.** Bost minutuko elkarriketa labur bat izango da. B2 edo goragoko mailaren bat dutenek (EGA, adibidez) ez dute azterketarik egin beharko, baldin eta, parte hartzeko eskaria egiterakoan, agiriaren kopia ekarri badute.
- **Test teorikoa,** bidaiarien garraioari buruzko eta ibilgailuen mekanikari buruzko ezagutzak neurtzeko.
- **Proba praktikoa,** ibilgailuen mekanikaren ezagutza baloratzeko.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

- | | | |
|-----|---|-----------|
| 1.- | Egoera ekonomiko-familiarra (aurkeztutako agirien arabera)..... | 0-3 puntu |
| 2.- | Euskarazko ahozko proba..... | 0-3 puntu |
| 3.- | Test teorikoa..... | 0-5 puntu |
| 4.- | Proba praktikoa..... | 0-4 puntu |

ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA

Eskabideak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, bertan emango den eskaera-orria betez, titulazioak behar bezala kreditatuz. Bulego orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Maiatzaren 2tik 15era bitarte, biak barne.

Orio, 2017ko apirilaren 28a.